

Naxerako monasterioko klastroko trazeriak konponduko dira

■ *Ertioxako herriam
daude Iruñeko
Erresumako X. eta
XI. mendeetako.
erreegen hilobiak*

Alberto Barandiaran / Iruñea

NAXERRAKO (Ertioxa) Santa Maria la Real monasterioko klastroko trazeriak zaharberritzeko lanak hilabete baino lehen hasiko ditu Espainako Kultura Ministerioak, atzo bertan bildu zen Monasterioko Patronatuak onartu zuenez. Iruñeko Erresumako X. eta XI. mendeetako errege-erregina infante zenbat gordetzen dituen monasterio honetako patronatuko parte dira Naxerako Gobernu eta He-go Euskal Herriko lau diputazioak, Ertioxako Gobernu, Espainako Kultura Ministerioa, Naxerako Udaia eta Monasterioko Frantziskotarren komunitatea. Hauek guztiak izango dute beren gain monasterioaren berritzearen erantzukizuna.

Naxera eta Nafarroaren arteko loturak X. mendean disorburi, Iruñeko Santxo la Garces-en eta Leongo Ordoño II.aren armadek hiriko defentza musulmana hautsi eta lehenak hirta erresumarako egin zuenean, 1052an, Gartzia IV. Santxez erregeak eratu zuen Santa Maria la Real monasterioa eta bertan kokatu zuen bere dinastiaren erret panteoia. Hortik, historikoki, Gartzia Santxez Naxerakoa izendatu izan da. Egun, monasterioko erret panteoian X. eta XI. mendeetako Iruñeko Erresumako errege eta printzeak —oro har 34— daude hilibrituta.

Hain zuzen ere, atzo ezohiko bilera bildu zen patronatu horren helburu nagusia da monasterioaren kontserbazioa eta bertan dagoen ondare historiko eta arkitektonikoa ren zabalpena. Atzoko bilera Javier Otano Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta euskal diputazioetako kultura zuzendariak egon ziren. Bileraren helburua zen klausuroan egiten ari diren lanet buruz erabakiren bat hartzea, lehengo astean Naxerako alkatereak geldiarazi zituelako, aurrekontu nahikorik ez zegoela eta.

Patronatuaren zama ekonomiko handiena Espainako Kultura Ministerioak eramate du, baina iaz Nafarroako Alean egin ziren lanetarako Iruñeko Gobernuak hamar milioi pezeta —25 milioi libera inguru— jarri zituen aurrekontua berdintzeko.

Klastroko trazeriak konpontzeaz gain, Patronatuak erabaki zuen monasterioaren egoera orokorrari buruzko txostena kontratatzea, hurrengo urteetan egin beharretako lanak zehazteko. Ondorioak urtebete barru egongo dira prest. X